

## Botoa zeini ez?

**LUIS BANDRES UNANUE  
JON GURUTZ OLASKOAGA**

EHU-KO IRAKASLEAK

**E**usko Legebiltzarrerako hauteskunderen atarian gaude; beraz, aukera egokia da gure botoa zeini eman nahi dugun erabakitzeak. Erabakiera hauek oso garrantzi handikoak direlakoan nago, beren bitartez, hurrengo lau urteetan gure Euskal Autonomia Erkidegoaren lema noren eskan izango den finkatuko baitute. Beraz, horren inguruan hausnarketa bat edo beste egitea bidezkoa dela iruditzen zait.

Aldi honetan, talde «independente» batzuek eta PSOE eta PP alderdi politikoak etengabe ari dira Eusko Jaurlaritzaren «aldaketaren» beharra aldarrikatzen. Horren aurrean, lehenengo galdera izango litzateke «aldaketa» horrekin zer esan nahi duten jakitea, guk dakigunez, behintzat, Jaurlaritzatik Euskadin aritzen edo aritu diren alderdi politiko ia guztiak pasatu baitira: EAJ, PSE(PSOE), EA, EE, eta IU. Beraz, bi muturretakoak alde batera utzirik, besteak. Beharbada, «aldaketa» hori aipatzerakoan lehendakaria beti EAJ alderdikoa izan dela errefusatu nahi izango dute, baina hau horrela izan da, hain zuzen ere, boto emaleek horrela erabaki dutelako; eta boto emaleek ez dira inoizkoak edo ezjakinak, PPKo presidentea ohi Jose Maria Aznarrek, hauteskunde

batzuk galdutik ondoren, iradoki zuten bezala.

Bestalde, zertarako nahi da aldaketa hori? Azken urte hauetan, EAJko lehen-dakariaren gidaritzapean Herri honek aurrerakada ikaragarriak ezagutu ditu; eta parametro gehienetan, Espainian baino hobeto gaude, Europako herri garatuena zerrendako burukoekin bat gatz hainbat gauzatan. Eta hau da PSOEkin nahiz PPK Espainian lortu ez dutena. Eta zer esan beste esparru ilunagoetan sartuko bagina? Hor daude hainbeste ustelkeria, hor daude hainbat delituegaitz (torturak, erailketak...) kondenatuta daudenei alderdi horien gobernuetan parte hartu duten zenbaitek egindako bisitak. Horrelako gauzak ez dira gertatu gure artean, nik dakidanez, behintzat.

Beste arloa pasatuz, hauteskunde hauen helburua Eusko legebiltzarkideak aukeratzeko da; hots, gure herriaren nahia eta ahotsa izango dutenak; baina orain dela gutxi ikusi ahal izan dugun bezala, nahiz eta, foro horretan erabakiera bat gehiago absolutu batez onartuta izan, PSOEko eta PPKoek ez dute inongo erreparurik izan Madrilen hankaz gora botatzeko. Hau da alderdi hauen errespetua Eusko Legebiltzarrerako, hau da alderdi horien jarrera Euskadin demokratikoki hartutako erabakiera baten aurrean, eta orain gure botoa eskatzen digute! Zertarako? Madrilek esaten duena hemen beteazteko? Gure egoera ekonomikoa nahiz kulturala Espainiarena bezalako izan dadin?

Baina, zorionez, horien aurrean beste talde batzuen helburu nagusia Euskadiren alde lan egitea da, Euskadiko herritarrek maila egokiena eskura dezaten, Euskadik ahal den egoera onena izan dezan (eta gero etorriko da, nahi bada, Espainia, Europa, Mendebaldeko zibilizazioa edo Mundu mundiala). Aldiz, lehen aipatutako bi alderdi horiek, PSOE eta PPK, beren helburu nagusia Espainian kokatu ondoko badatorke oso ongi eta, bestela, hor konpon!

Baten batek jarrera hau, hots, gure lehenatasuna Euskadin ipintzea, zerbait egoista edo berekoikeria dela pentsa dezake. Oker dago, ez dago inori laguntza ematerik ez badago ezer emateko; beraz, gainerakoekin solidaritatea izateko (eta Euskadi herri solidarioa dela etengabe frogatzen ari da) gure egoera egokia izan behar da. Eta hori da guk nahi duguna.

Honekin guztiarekin batera, alderdi horien azken urte hauetako historiaren pasarte bat edo beste gogoratzea ez da alferrik izango. Hasteko, hor daukagu PPK, Frankismotik etorritako alderdia, eta bere aurretiko hurbila (Alianza Popular, hain zuzen) Euskadiko Autonomia Estatutuaren aurkakoa zena, baita Espainiako Konstituzioaren aurkakoa ere. Eta bera testu horien defendatzaile sutsuenetako bat bezala aurkezten zaigu. PPK beste bi biolentzia eta terrorismoa salatzea eta errefusatzeko exijitzen die, baina berak ez du ez kondenatzen ez eta errefusatzeko ere

gure artean izan den biolentzia handiena. hots, *Alzamiento Nacional*-a esaten dioten hori. Ez dezagun ahaztu alderdi horren partaide nagusietakoa, eta oker ez banoago Oherezko Presidentea, Fraga Iribarne dela, Francoren Barne ministroa eta, beraz, besteak beste, Gasteizen Frankismoaren azkeneko buztankadetan manifestazio batean poliziak egindako hiru hilketen eta hainbat zaurituren erantzule. Oraindik ez dira gertaerik salatu. Eta zer esan Espainiak Iraken izandako parte hartzeari buruz? Hori ez al da terrorismoa izan? Zeinek sartu zuten Espainia gerra horretan? Eta gero Madrilen martxoaren 11n gertatutakoa ez al dauka zerikusirik horrekin?

Bestalde, hor dago PSOE, aurrekoaren lagun fina, Euskadin, behintzat, eta Euskadirekin zerikusirik daukaten gai guztietan. Ehun urtetik gorako tradizioko alderdia, baina gaur egun haren fundatzaileak eta diktaduraren kontrako gerran aritutakoak ezagutuko ez zutena hemen izango balira; alderdi errepublikarra, gaur monarkia onartzen duena; alderdi marxista, gaur ez; herrien autodeterminazioaren aldekoa, gaur ez, edo ez Euskadirena, behintzat; diktaduratik irten eta *Nafarroa Euskadi* da, esaten zuten alderdia, gaur UPNrekin batera hori bortizki ukatzen duena... Eta zertarako jarraitu?

Hori da gure begien aurrean daukagunaren parte bat. Hortik aurrera zuk, irakurle, erabaki.

## Boto deusezari ez

**JOSE LUIS ALVAREZ ENPARANTZA,  
'TXILLARDEGI'**

IDAZLEA

**Z**abaldutako (ofizialki) Baskongadetakako hauteskunde kanpaina. *Ley de Partidos* lantsagarriaren aitakian, (Herri) Batasuna gabe hasi da, eta Aukera Guztiak zerrenda gabe ere bai. Horra hor «talantea». Talante zaharra, alajainkoa!

Hitz batez: Ezker Abertzale debekatu kanpoin utzita abiatuko da.

Nola esan dezakete gure inguruko batzuek baldintza hauetan burututako hauteskundeak «osoki demokratikoak» izango direnik? Nola esan ote dezake inork Ezker Abertzalearen atal inoizkoen bazterturik sortuko den Legebiltzarra «osoki demokratikoa» izango denik?

Garbiago ikusteko.

PNVa edo EA gabe burututako hauteskunderen ondorioz irtengo litzatekeen Legebiltzarra, nondik nora izango litzateke «osoki demokratikoa»? Inor ez litzateke horrelakorik esatera ausartuko.

Baina HB gaitzestea, madarikatzea, are makilaka tratatzea ere, «modan» jarri bide dutenez, txalo.

Bihozkadaz jokaturik, ziplo dator bu-

rutazioa: «baldintzak ikusita, ez dugu fartsan parte hartuko». Edo-ta, «boto nulo eman, boto deuseza; eta kitto».

Hots, Euskal Herria, Aznarrekin lehen, eta Zapaterorekin orain, jasaten ari den eraso eskerga betean, abertzaleok ez dugu bihozkadaz jokatzeko eskubiderik.

Lotsarik gabe aldarrikatu du etsaiek operazioaren helburua: «*dejar a los terroristas, y a quienes los jalean, fuera de la vida institucional*».

Hori bakarrik ez. Ez baita ahaztu behar ondoko asteotan 263 hiritarrek pasa behariko dutela Madrileko Tribunaletatik; besteak beste *Egin* eta *Egunkaria* klausuratuak izan direlako. Eta beste mila jipoi batera eta bestera.

Jarrera estetikoak hartzeko gogoak (eta motiboak) ez dira falta. Ez.

Baina egoera ez dago estetikeriatan galtzeko.

Galdere oso konkretua da: zer egin dezake datorren 17an Ezker Abertzale debekatuari bere botoa eman nahi dionak? Ez dagokigu guri, noski, inori zer egin behar duen aholkatzea.

Baina etsaiaren helburua ezin nabarmenagoa izanik (Ezker Abertzale debekatu ez balego bezala jokatzen hastea), boto deusezak, boto nulok, ez du ezer konponduko.

Baskongadetakako Legebiltzarra zeharo desorekatuta jaioko da; eta, lehenengo aldiz, espainista anti-abertzaleak, nagusi gerta daitezke Gasteizen. Ibarretxeen beldurrak ez dira oinarririk gabeko lokamutsak.

Oraingoan, lehen Nafarroa bezala, Baskongadetan ere «abertzaleak» (nahi den beste kaxotx erantsita), gutxiengo bihurtu daitezke.

Egia da. ETA suetenik eman gabe darrailarik, Anoetako giro aldaketa maingugelditu dela. Eta indar abertzalei (politiko, sindikal, eta kulturaleri batera) egur emateko aitzekia bandejan eskaintzen dugula Madrilen.

Eta hori guztia asko izanik ere (larregi, hobeki esan), eta Ibarretxe Madrilen jandako ostikada guztiz lotsabakoa izan arren, abertzaleok ez dugu inondik inolako bermerik PNVak, beste hamaika aldiz bezala, galtzak lurreraino erortzen utziko dituela ez antzemateko.

Oso poliki, oso maltzurki, espanturik gabe, «herri-kontsulta» delakoa ondoko hilabeteetan burutuko duela errepikatzen du. Hori bai. Baina kontsulta horretan zer galdetuko duen zehaztu gabe.

Hasiak gara entzuten eta irakurtzen «governagarritasuna» kontutan hartu behar dela beti, PNVa «ez dela mendira

joango», «negoziatu egin behar dela egusentira arte» (zer behar da negoziatu?). Eta, hitz batez, «beste Estatutu bat» negoziatu behar dela (nahiz hauteskunde garaiaren egon!).

Hots, PSOE eta Francisco Lopezek, hitz berberak erabiltzen dituzte: «*hay que buscar el consenso para un nuevo Estatuto*», «*hay que repartir de cero, sin imposiciones previas que dividan a la sociedad vasca*», eta abar.

Gehi beste hau: «*la consulta solo se llevará a efecto si no hay violencia por medio*». Baina, jakina, indar polizialek bere egur banaketari eursiko diote. Horientzat «barra libre».

«*La mitad más uno no puede imponer su proyecto secesionista a las Vascongadas*». Baina inork ez du aldarrikatzen: «*tampoco la mitad menos uno podrá seguir imponiendo su proyecto unionista con el apoyo mediático y armado de Madrid*».

Gu European bizi gara. Eta Europa horretan (eskuindarra errotik) Estatuek dute ahotsa. PNVak orain lotsarik gabe ukatzen badu ere.

Euskal Estatu Askatua izango ez duguno, jai. Esan dezagun garbi: Independentzia alail.

Eta bozka dezagun helburua hau dela kontutan hartuz.